Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# ZERGA-ORDEZKARITZA ESKATZEA

1. Eskabidea ordezkariak hasi behar du. Horretarako, Gipuzkoatarian sartu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako identifikazio-bitartekoren bat erabiliz.



2. Ordezkaritza-eskaera hasteko, Tramiteak Online menua bistaratuko da; bertan, identifikatutako pertsonak sarbidea duen aplikazioak ikusiko ditu. Ordezkarien Errolda aplikaziora bi bidetatik sar daiteke:

   a. Tramiteen bilatzailearen bitartez:




   b. Pantailaren eskuinaldean kokatutako sarbide zuzenetik, “Nire ordezkaritzak” ataletik



3. Hasierako pantaila honetan, Zerga ordezkaritzetan sartu.



4. Altan dauden ordezkaritzen zerrenda agertuko da. Alta berri bat egiteko, “+Ordezkaritza berria”n klik egin.



5. Ordezkatuaren datuak sartu, edukiak eta indarraldia aukeratu, eta “Jarraitu” klikatu.



6. Eskaera sinatu, beheko botoi urdina sakatuta (“Eskabidea sinatu”).



7. Aplikazioak ordezkaritza berriaren eskaera bidali izanaren konfirmazioa aurkeztuko du. Dokumentazioa aurkeztu behar bada, beheko atala osatu beharko da ("Dokumentazioa erantsi"). Dokumentazioa eskabidea egiteko unean edo geroago aurkez daiteke, gehienez ere hilabeteko epean. Ez da beharrezkoa izango dokumentazioa eranstea ordezkaritza balioztatuko duen ordezkapen-ahalmena duen ordezkaria erakundearen legezko ordezkaria bada eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkaritzaren erroldan inskribatuta badago.



8. Dokumentazioren bat aurkezten bada, dokumentazioaren bidalketa hori ere sinatu beharko da,"Eskabidea sinatu" sakatuta.




Aplikazioak dokumentazioa bidali izanaren konfirmazioa aurkeztuko du.